




HERRI ARDERRALANTZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

HEZKUNTZA SAILA


2018ko EPEa. BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

OPE 2018. ENSEÑANZA SECUNDARIA Y FORMACIÓN PROFESIONAL

ESPEZIALITATEA / ESPECIALIDAD: EUSKARA ETA LITERATURA

Jandoneanez vezpera baten igaro ninçan basoti, Iruraizco hermandadean lecu on baten aldeti.		Egun ascotan ni ebili naiz, ez dot edugui dicharic, ene lindexa, cu ecusteco; banago sepultaduric.—	
Dama bategaz t[o]padu ninçan, lindexa parebagaric; berva eguiten asi ninçacan, jarri guinean gueldiric; neure bician ecusi ez dot ayn gauça abisaduric.	5	—Oy, arren, jauna, ixilic bego, 35 ce besat orrelacoric, oyta cegayti cu erayteco ni[c] eztot poderioric.—	
Forma onetan berva neguion, ez jat ancitu bervaric: —Alabacen dot ceruan Jauna, bide dodana eguinic, cegaiti naben çuregaz batu,	10	—Poderioa andia doçu, Ceruco Jaunac emunic; 40 çure beguioc ecusizquero, banago catigaturic.	
lindexa, eben bacarric. Edola bere, joan baño leen, oy bear doçu icasi çure amorez, ene laztana, nola nagoan galduric.—	15	Pensamentuoc altuan ditut, çuc ala meresciduric, oy eta ez dot abajaduco 45 neure bician punturic.—	
Erançun cidan utra cortesdo, beguiac abajaduric: —Neure buruau erraz daudit nic dichosaçat edugui, jentil honbrea, cegaiti naxan	20	—Çure bervaoc adietaco ez dot entendimenturic; claruxeago berva eguiçu, edo çaoza ixilic.— 50	
eguin ni çugaz topadiz; oy eta barriz osteangoan, arren, ce beguit burlaric.—	25	—Ene laztana, çure bildur nax, ezin eguin dot bervaric. Nic claruago banesaqueçu, oy baneu licenciaric.	
—Ene laztana, ene fedea, ez dot eguiten burlaric.	30	Ene laztana, ençun naguiçu; 55 arren, ez artu penaric; neure peneau esan bear dot, ezin neongue ixilic. Donzellachoa, egun batean oy eta ninçan etorri	60

çure lecura, flor delisea, oy inor baga bacarric. Ceure eseco portaleetan oyta ceoncen jarriric; neure beguioc goratu neben; ez neben pensamenturic, dama galanta, an ceoncela oyta ceurori bacarric. Atrevimentuz usadu neben, banago gaztigaturic; itaundu nagon poridadean beste donzella bateri nola ereiçun ceure icenaz; erançun cidan: Catalin.	65	basoan neurau bacarric nago, ce beguit agravioric.— —Ene laztana, ezin neyque nic orrelaco gauçaric; culpa andia ecarri leydae, 95 eyça galdu banegui.— —Jentil onbrea, ez neyqueçu neure bician bervaric, oy eta bardin ezpaceeguit
Oy, arrezquero, Jaun Cerucoac bercheac daqui bacarric, Catelinacho, nola nagoan amoreminez gaxoric.	70	oy orain ichi libreric. 100 Biar-eciac urean datozi; arren, betorque ebeti. Al daguidana nic eguingo dot, ez artu asecabaric.— —Orrela gura doçun azquero, 105 ezin neyque besteric.
Çuc baxe inorc ezin liquet munduan remedioric; ene laztana, osa naçazu, ez eguin beste gauçaric. Lecu onean topadu gara,	75	Domecaan etorrico naiz, eztot eguingo faltaric. Ascotan ondo gueratu çatez, ene lindea, bacarric. 110 Oy eseguino lagun deyçut, badoçu borondateric.— —Esquerri asco, jentil onbrea,
Jaun Cerucoac guraric; oy apeadu bear neuque, badoçu borondateric.	80	ez dot ardura lagunic, gaacustenac oy ez daguien 115 pensadu beste gauçaric.— Ichi neusan, bervaxe oec
Ene laztana, solas daigun gueurcheoc vioc bacarric.— —Jaun Cerucoaen amorearren,	85	neure laztanaz eguinic: —Berori defendidu jat eta ni gueratu nax galduric.— 120
jauna, çaoça gueldiric;	90	



A ATALA (6 puntu)

1. Iruzkin linguistikoa (2 puntu)

1.1. Egin ezazu **lerro batean edo bitan** hitz hauen **azterketa fonetiko-fonologikoa**:

- lindea
- barriz
- nax
- domecaan

1.2. **Lexikoa.** Bilatu testuan hitz hauen parekoak:


- hemen
- oso
- ahaztu
- utzi

1.3. Egin ezazu, **lerro batean edo bitan**, hitz hauen **azterketa morfosintaktikoa**:

- cegaiti naben (15. lerroan)
- çuregaz (15. lerroan)
- gueurcheoc (88. lerroan)
- Berori (119. lerroan)

1.4. **Aditza.** Aztertu honako aditz hauek:

- asi ninçacan (7. lerroan)
- besat (36. lerroan)
- neongue (58. lerroan)
- neyqueçu (97. lerroan)



2. Egin ezazu testuaren laburpena. (1 puntu)

3. Kokatu goiko testua bere testuinguruan. (Gehienez 70 hitz) (1 puntu)

4. Egilearen eta bere obraren berri laburra eman. (Gehienez 120 hitz) (1 puntu)


5. Eman euskara batuan: (1 puntu)

- a) Çuc baxe inorc ezin liquet / munduan remedioric; (79-80. lerroetan)
- b) —Ene laztana, ezin neyque / nic orrelaco gauçaric; /culpa andia eçarri leydae, / eyça galdu banegui.— (93-96. lerroetan)
- c) Biar-eciacurrean datozi; / arren, betorque ebeti. / Al daguidana nic eguingo dot, / ez artu asecabaric.— (101-104. lerroetan)
- d) ez dot ardura lagunic, / gaacustenac oy ez daguien / pensadu beste gauçaric.— (114-116. lerroetan)

B ATALA (2 puntu)

DBHko tutorea zara. Ikasturte honetan, zure talde batean, jokabide desegoki baten aurrean zaude. Ikerketa batzuek, noizbehinka, ez dute kontuan hartzen ikasle baten iritzia, gutxietsi egiten dute, adeitasunik gabeko keinuak egiten dizkiote, eta ez diote errespetuz hitz egiten. Egoera areagotu ez dadin, esku-hartzea erabaki duzu.

Azal ezazu nola jokatuko zenukeen. Kontuan izan itzazu Hezkuntzako Araudi orokorra, Oinarrizko Hezkuntzako curriculuma eta 201/2008 dekretua, ikasleen eskubide eta betebeharak.



C ATALA (2 puntu)

Ahozkoaren ulermenak, dakizunez, berebiziko garrantzia du komunikaziorako konpetentziaren ikuspuntutik. Trebetasun hori lantzeko, zein izango da zure planteamendua edo esku-hartzea? Azal ezazu urratsez urrats, kontuan hartuta ahozkoaren ulermenaren lantzean euskara batuaren ulermenaren ez ezik euskalkia ere integratu nahi duzula, ikasleen **testuinguru zehatz bat** aintzat hartuta.